

han-hemen

Leopold Vietoris matematikari ospetsua zendu da Austrian, 111 urtekin

Leopold Vietoris Austriako Innsbruckeko Unibertsitateko matematikari ospetsua zen. Horretaz gain, Austriako gizonezkoarik zaharrena ere bazen, 111 urte baitzituen. Duela aste batzuk emaztea hil zitzaion, 110 urte zituela, berarekin 66 urte ezkon-duta egon ostean, eta emaztearen bidetara jarraitu zion atzo zientzialariak. Vietorisek 80 liburu idatzi zituen, gehienak matematika arlokoak. Gainera, eskiak diseinatzeko zituen, eta Alpeetako glaziarra ikertu. Bere azken liburua 104 urte zituela idatzi zuen. 1891ko ekainaren 4an jaio zen, eta Vienako Unibertsitatean egin zituen matematika ikasketak. Ikasketa horiek I. Mundu Gerra amaitu ondoren bukatu zituen, 1920an.

New Yorkeko estatuak sei milioi dolar erabili ditu Viagra botikan

Garestiegia delako Viagra botika erosi ezin dutenei begira, AEBetako New Yorkeko estatuak sei milioi dolar erabili zituen iaz aurrekontuetatik botika hori finantzatzeko. 2000. urtean medikuek 117.000 laguni egin zieten errezeta Viagra hartzeko. «Gobernu federalaren agindua da», esan zuen John Signos Osasun saileko bozeramaileak, kopuru itzel horren inguruan. Errepublikanoen artean, Michael Longek zera esan zuen: «Viagra ez da hil edo bizi-ko botika; beraz, ez litzateke finantzatu beharko».



PAULO FRANKEN / EPA

Peleren alaba da Flavia Christina Kurtz


Edson Arantes do Nascimento 'Pele'-k, sekula izan den futbolari brasildar handienak, onartu egin du Flavia Christina Kurtz alaba duela. «Bere istorioa azaldu zidan, eta, begietara begiratu orduko, nire alaba zela jakin nuen», esan zuen Pele handiak.



CHRIS PIZZELLO / AP

Aita-alabak elkarrekin 'The triumph of love' filmaren estreinaldian

Mira Sorbino eta haren aita Paul Sorbino Los Angelesen (AEB) izan ziren atzo, Cinerama Dome antzokian, *The triumph of love* filmaren estreinaldian. Mirak rol nagusia jokatzen du Clare Peploeren lanean.



DENNIS COOK / AP

Elton Johnnek hiesaren aurkako diru laguntza handiagoa eskatu dio AEBetako Senatuari

Elton John abeslaria AEBetako Senatuan izan zen atzo, AEBek hiesa munduan gehiago zabal ez dadin diru nahikoa badutela esateko. «Historian izan den nazio aberatsena» dira AEBak, Johnen ustez.

Alargun batek auzitara jo du, senarra izan zuenaren esperma erabiltzeko

Londresko Apelazio Epaitegira eraman du bere eskaera U andereak, senarra izan zuenaren espermarekin haur bat izateko. 34 urteko U andereak 47 urteko senarra galdu zuen iaz, asmak jota. Senarrak, ordea, bere esperma izoztua zuen erreserba batean, eta orain U andereak hura erabili nahi du haurra izateko. Bristolgo klinikak, aldiz, uste du senarraren baimenik ez zuela esperma hori erabiltzeko, eta hazia deuseztatu nahi du.

Geena Davisek bere lehen haurra izan du

Geena Davis Oscar saria lortu zuen aktoreak bere lehen haurra izan zuen herenegun, Los Angelesen (AEB). Geena Davisek 46 urte ditu, eta bere laugarren senar Rex Jarrahy medikuarekin izan du alaba. Ama-alabak ongi dira. Aurretik, Richard Emmolo, Jeff Goldblum eta Renny Harlinekin ezkon-duta egon da Davis.


Jennifer Lopezek kontratua sinatu du Columbiarekin

Columbia zinema estudioetako izar bilakatu da Jennifer Lopez, enpresa horrekin kontratua sinatu eta gero. Lopezek hiru urtez lotu du bere jarduerak Columbiarekin, eta horren bidez bere egitasmoak garatu ahal izango ditu Nuyorican ekoiztetxearekin. Bere azken filmaren arrakastari esker lortu du kontratu hori.

hilberriak

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(0034) 943 300 222